



1



AKONDROPLASIARI BURUZ

Akondroplasia gaixotasun **GENETIKO** bat da, gure gorputzeko hezur batzuen hazkundera eragina duena.

ESKELETOAREN hezur luzeenak ez dira behar bezain beste hazten eta, ondorioz, desgaitasun hau daukaten pertsonak **stxikitxoagoak dira.**

Akondroplasia daukaten umeei **arreta espezifikoren** bat eta elikadura berezia baino ez dute behar, baina euren bizitza zurea bezalakoa da. Ilusio eta itxaropenez gainezka dago.

Ipuin honetan Pablo ezagutuko duzu, bere gaitasun mordoarekin liluratuko zaituen ume

azkar eta dibertigarria.

POLIZIA IZAN NAHI DUUUUUUT!

Eta horrela esaten dut, ozenki, mundu guztiak jakin dezan...

...Eta polizia izan nahi dut,
ez bakarrik polizia eta lapurren filmak gustuko ditudalako, jazarpenak eta kotxeekin...,

baizik eta detektibeak ni bezain

AZKARRAK eta

EDERRAK

izan ohi direlako ere.



5



Ederra naizela asko esaten du nire aitak, eta arrazoia duela uste dut. Izan ere, beraren antza handia dut gaztea zenean.

Azkarra naizela

NIRE IRAKASLEAK esaten du, Pablo

ere deitzen dena, problemak

AMEN BATEAN EBAZTEN DITUDALAKO.

6

BAINA ITZUL GAITEZEN POLIZIA IZATEAREN KONTURA.

Badakit niretzako, besteentzako

baino pixka bat gogorragoak izango direla proba fisikoak. Entzun dudanez oso gogorrak dira

(poliziak superatleta batzuk dira).

Horregatik hori lortzeko plan bat daukat. Kriminologia ikasiko dut eta **DETEKTIBE** bilakatuko naiz.



Gainera, nire iritziz, **DENA EZ DA INDARRA.**

dena ez da indarra. Pertsona onek, nire ausardia eta azkartasuna beharko dute gaizkileak harrapatzeko...

Nik esaten dudanez:

“Jarraitu bere arrastoa eta laster aurkituko duzu gaiztoa”

6

Eta
arrastoak aurkitzen
primerakoa naiz, e?...

Zuek ez al diozue
inoiz zuen

intuizioari

jaramon egin?



Nik behin eta berriro egiten dut.
Hori da nire arrakastaren sekretua:

**“Senari jarraituz, ez dut sekula
hanka sartu, horregatik diote
naizela, tipo berezi eta itzela”**

7

(Tira, olerkari ere bihur
naitekeela pentsatzen hasi naiz...
Imajinatzen duzue?
Polizia olerkari bat, zein ondo!)



8

Uste dut intuizioaren kontua nire **AMATIK** etorri
zaidala. Bera bai dela intuitiboa.

Beti daki edonork baino lehenago zer behar
dudan, hitzik esan gabe

**"INTUIZIOA ETA MAITASUNA,
HORI DAUKA AMA KUTTUNAK!"**



(Bai, bai, azkenezan
olerkaria greg banaiz)

9



Eskolan, nire adiskideek,

FERNANDO eta **Miguel**, qanimatzen naute eta
esaten didate kriminologian karrera harrigarria egin
ostean poliziako buruzagi bilakatuko naizela. Imaginatu
ahal diren lagunik onenak dira.

Orduan, *gorputz berezi*
bat sortuko dut, ni bezala txikiak diren pertsonez
osaturakoa. Seguru daude

"Inteligentzia Sail Nazionalerako"
laguntza bikaina izango ginatekeela.



Normalean, gauza astunak

**ERAMAN BEJAR
DITUDANEAN.**

Fernandok laguntzen dit.

Nik laguntzen uzten diot, egia esan,
sendokotea delako eta bere
giharrez oso harro dagoelako.



Miguel klaseko **zientifikoa** da.
Nagusia denean, **arkeologoa** izan nahi
du eta Fernando eta niri eskolako
patioan indusketa interesgarriak
egitera eramaten gaitu.

Saskibaloï-kantxaren azpian
IGUANODONTE
baten femurra aurkituko
duela sinesten du.

Beraiekin gauza pila
 ikasten ari naiz.
 Eta horrela,
 pixkanaka-pixkanaka,
 prestatzen ari naiz gure
 herrialdeko historian inoiz egon den

POLIZIA,
IKERTZAILE,
DETEKTIBE ETA
KOMISARIO,
ARKEOLOGIAN ADITUA,
(ETA OLERKARIRIK)
 onena bilakatzeko.

13



14

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
 Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.



15

Seguru nago nire
ametsa beteko dudala
eta oso gora helduko

NAIZELA!



AMAIERA